

Gorka Artola Alberdik, Bergarako Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera, gaia aztertu eta ebazpena eman dut.

Gaiaren azalpena:

Alkateak 2026ko ekainaren 23an emandako dekretu baten bidez oinarriak onartu zituen, 2026ko irailaren 12ko San Martin ferian barazki, fruta, gazta eta gainontzeko elikagaiak saltzeko postuak adjudikatzeko, talo postua jartzeko espazioa adjudikatzeko, eta odoloste txosna adjudikatzeko prestatutakoak (2026HIFE0002).

Eskatzaileek beraien eskaera aurkeztu dute udal erregistro ofizialean.

Erabakia hartzeko kontuan hartu dena:

Udaleko nekazaritzako ingeniari teknikoaren txostena.

Hori guztia kontutan izanik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehen.- Oinarrien arabera aurkeztutako eskaerak ikusita, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzea (web-orrian argitaratuko dira zerrendak 2026ko uztailaren 17an).

Bigarrena.- Baztertuei 5 eguneko epea ematea, falta zaien dokumentazioa aurkezteko. Ondoren, 2026ko uztailaren 27an 12:00ak baino lehen argitaratuko dira web-orrian behin betiko onartuen eta baztertuen zerrendak.

Erabakiaren aurkako errekursoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtoa edo administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtoa aurkez dezake, 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena):

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.*
- Non: Alkatetzara jo behar da.*

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik:

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.*
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.*

c) Berraztertze errekurtsoren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsoren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Honela jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, Alkateak agindu eta izenpetzen du eta nik, Idazkariak, ziurtatzen dut, Bergaran, dekretuaren datan.

Alkatea

Gorka Artola Alberdi

Idazkaria

Xabin Juaristi Arrieta

BARAZKI,FRUTA,GAZTA ETA ABARREN POSTUEN ESKATZAILEAK

– ONARTUAK:

ESKATZAILEAK
Katealde Artesanos S.L
Joseba Meabe Ruiz
Gonzalo García
Janire Goikuria Petralanda
Nagore Martín Ugarte
Maria del Pilar Miguel Albo
Gustavo Lopez Ruiz
Bialdea Gurea S.L
Mariaren Lagundia Ikastola
Maison Dufrexe
Mañeko S.Coop
Conservas y salazones Arlequin S.L
Ines Flores Navarrete
Arantzazu Meabe Eguiluz
Jose Antonio de la Cruz Obra
Leyre Belaustegui Rejado
Janire Lamariano
Elortatxu Baserria
Eskubaratz Koop. Elk. Txikia-Lurretik bizi
Juan Carlos Esain Gorriti
Pikunietako Artzaiak E.Z
Carmen Etxeberria
Francisco Javier Gastañaga Cabezas y otro C.B
David Manso Muñoz
Aspace

– **BAZTERTUAK:**

ESKATZAILEA	ARRAZOIA
Ximun Iribarne	8 (5 urteko epea pasatuta)
Andres Etxabe Ostolaza	8 (5 urteko epea pasatuta)
Embutidos Aguirrezabal	8 (5 urteko epea pasatuta)
Ane Gorosabel	7,8
Maria Esocia Echeberria Irusta	3,8(5 urteko epea pasatuta)
Garazi Bizente Lazkano	3,4,5
Yussif Abdala	8 (5 urteko epea pasatuta)
Jose Alberto Perez Renero	8 (5 urteko epea pasatuta)
Margarita Revuelta Puente	8 (5 urteko epea pasatuta)
Ana Añibarro Aldayturriaga	8 (5 urteko epea pasatuta)
Urtza Sarrionandia Atutxa	5,7,8
Iñigo Gabilondo Ugarte	7,8
José Lombide Espiñeira	3,4,5,7,8

Baztertzearen arrazoiak

- 1- Eskaera
- 2- Enpresaren IFK
- 3- Jarduera ekonomikoen zergaren alta
- 4- Gizarte Segurantzaren egunean daudela ziurtatzen duen agiria
- 5- Ogasunean egunean daudela ziurtatzen duen agiria
- 6- NAN
- 7- Osasuneko erregistro-zenbakia edo osasun-baimena
- 8- Elikagaiak manipulatzeko txartela

ODOLOSTE POSTUEN ESKATZAILEAK

– **ONARTUAK:**

ESKATZAILEAK
Burdinola irristaketa kluba
Bergara aurrera kultur elkarte
Harrera elkarte
Gure artera-SARE

– **BAZTERTUAK:** Inor ez

TALO POSTUEN ESKATZAILEAK

– **ONARTUAK:**

ESKATZAILEAK
Goierriko Taloak

– **BAZTERTUAK:** Inor ez